BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1058

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 24koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Santa María Katedrala-Catedral Santa María Fundazioaren» estatutuetako 4. artikuluaren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko abenduaren 18an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan aldaketa bat inskribatzeko eskabide bat, zeina «Santa María Katedrala-Catedral Santa María Fundazioaren» estatutuetako 4. artikulua (fundazioaren helburua eta xedeak) aldatzeari buruzkoa baitzen. Aldaketa hori egitea Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen, 2012ko irailaren 7an. Espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion eskabideari.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, alegia Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen hartan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 4.2 artikuluan aurreikusi babeslaritza-funziotan jardunez, 2013ko urtarrilaren 24an, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, Fundazioaren estatutuen aldaketa onartu egin da, betiere dekretu horretako 31.1 artikuluarekin bat etorriaz eta, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 31.1 artikuluan xedatutakoarekin.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gasteizko «Santa María Katedrala-Catedral Santa María Fundazioaren» estatutuetako 4. artikuluaren (fundazioaren helburua eta xedeak) aldaketa inskribatzeko agintzea, agindu honen data duela. Fundazioaren Patronatuak 2012-09-07an erabaki zuen aldaketa hori; eta 2012ko urriaren 15ean, Alfredo Pérez Ávila notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan jasotako zehaztapenekin bat dator (protokolo-zenbakia: 2531).

Estatutuetako 4. artikuluan egin den aldaketaren ondorioz, hauek izango dira, aurrerantzean, fundazioaren xedeak:

«4. artikulua.– Fundazioaren helburua eta xedeak.

Fundazioaren helburu eta interes orokorreko xede dira Gasteizko Santa Maria Katedrala eta bere hiri-ingurunea finkatu, leheneratu eta birgaitzea, era integralean. Horretarako, beren-beregi prestatutako plan gidatzaileko jarraibideak garatu beharko ditu Fundazioak, eta, horretaz gain, Katedralari erantsita izanik Fundazioaren jabetzakoak diren eraikinen erabilerak kudeatu beharko ditu, eta bai Arabako Lurralde Historikoko kultura-ondarearen arloko jarduerak burutu eta turismoa sustatu ere.

Gainera, fundazioak katedralaren eta bere ingurunean arlo ez-erlijiosoa kudeatzeko ardura izango du, indarrean den bitartean.

Xede horiek gauzatzeko, Fundazioak beherago zehaztu jarduerak burutu beharko ditu, zuzenean edo besten erakunde batzuekin (publiko edo pribatuekin) lankidetzan, betiere bere baliabideen bidez eta Patronatuak urtero onartzen dituen Memoria eta Programekin bat etorriaz.

– Plan Gidatzailea onartu eta gauzatzea.

– Finantzaketa Planaren arabera, programa, egutegiak eta esku-hartzeak onartzea.

– Esku-hartzeetarako beharrezko proiektuak kontratatzea.

– Esku-hartzeetarako beharrezko lan eta obrak gauzatzearen gaineko segimendua eta kontrola.

– Esku-hartzeetarako beharrezko lanak eta obrak finantzatzea.

– Fundazioaren helburua den jarduera gauzatzeko tresna materialak sortzen laguntzea.

– Fundazioaren xedeen markoaren barruan eratutako tresna materialak kudeatzea.

– Katedralari erantsita izanik Fundazioaren jabetza diren eraikinen erabilerak kudeatzea.

– Arabako Lurralde Historikoko kultura-ondarearen arloan, Patronatuak onartzen dituen jarduerak, enkarguak eta gomendioak burutzea eta programak –zuzenean edo beste batzuen bidez– garatu eta kudeatzea, eta orobat, arlo horrekin zerikusia duten ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak, betiere hartarako jarritako aurrekontuen kargura.

– Esleitzeko ahalmena izateari dagokionez, sektore publikoko erakunde, entitate eta organismoei –Fundazioaren baliabide propio eta zerbitzu tekniko kontsideratu daitezkeenei– egitea kudeaketa-enkarguak edo -gomendioak, betiere Azaroaren 14ko 3/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan edo dekretu hori ordezten duen arautegian ezarritako zehaztapenekin bat etorriaz.

– Fundazioaren helburua betetzeko, Patronatuak komenigarri jotzen duen beste edozein ekintza, eta, batez ere, Fundazioaren helburu eta xedeen zabalkundea egiteko direnak».

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 24a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.